

## HIZKUNTZA, HIZTUNEN GIZA ESKUBIDEEN ARABERA

Aramaio, 1999-IX-26

Juan San Martin,  
euskaltzaina

ONU-k, 1948ko abenduaren 10ean agertu zuen *Giza eskubideen aitorkizuna*. Espainian lehen aldiz Coruñako Agrupación Cultural O FACHO zeritzan erakunde hark —galegoz, gazteleraz, katalanez eta euskaraz— argitara eman zuen, Giza eskubideon aitorkizunaren XX. urteburua ospatzeko asmoz, Santiago Compostela-ko Unibertsitatean Derecho Político sailean katedradun zen J.A. González Casanova jaunaren hitzaurrearekin, Editorial Moret (1968) argitaletxean.

Han eman zen euskarazko testua Nikolas Ormaetxea “Orixe” zenak itzulia zen. Nork jarri zion izenburutzat: *Giza eskubidegai guzien aitorkizuna*. Geroztik izan dira beste zenbait testu euskaraz.

Agrupación Cultural O FACHO erakundeak argitara eman zuen liburu hura Francoren gobernuak baitua izan zen. Aitzakiatzat hartuz liburuaren hitzaurrea. Nork pentsa zezakeen Derecho Político katedradunagan holakorik? Hitzaurre hark ez zekarren legezko ez zenik, hizkuntza berez, hiztunen eskubidezkoa baita, zeren jatorra ez ezik, naturala da mendeak zehar arbaso eta gurasoengandik ikasia mintzatzen direnen artean. Baina, Francoren diktadurak ezin holakorik onar.

Orain, Amnesty International erakundeak 1984an, Joaquín Ruiz-Giménez-en aurkezpenarekin, Espainiako lau hizkuntzetan argitaratu zen hartan oinarrituko naiz. Non lasterketa batean parte hartu beharra izan nuen, hala eskatu zitzaidanez, eta Orixe eta beste euskarazko hitzulpenen laguntzaz egin nuen.

ONU-ren Giza eskubideen lehen artikulua argi eta garbi dio: “Gizon guztiak duintasun eta eskubide berdinekin jaiotzen dira, hargatik, arrazoiz eta konzientziaz jabeturik daudenez elkarren artean anaikiro jokatu behar dute”.

Bigarren artikulua lehen zatiak dioenez: “Pertsona guztiak Deklarazio honetan agertzen diren eskubide eta askatasun guzien jabe dira, inolako bereizketarik gabe, arraza, kolore, sexu, hizkera, erlijio, iritzi politiko edo beste izaera, nazio jatorriz edo ekonomi egoeraz, jaiotze edo beste edozein baldintzagatik baztertzetik ez den eskubidea”.

Eta hogeita seigarren artikuluairen hirugarren zatian dakar beste honako hau: “Gurasoek ukanen dute lehentasuna seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzekoan”.

Gero, horren ondorioz noski, Unesco arduratu zen lan sakon bat gertatzen, soziologo, hizkuntzalari eta pedagogoak bilduz eta elkarren artean hizkuntzen arazoa aztertuz, erabakiak argitara emateko. Gomendagarritzat argertuz: *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*, 1953. urtean.

Euskaltzaindiak bere sorreratik Jagon Sailaren ardurapean dituen eginkizunetarako baliagarri ditugu UNU eta Unesco-ren arau horiek, Euskal Herriko muga guzien gainetik, naiz Ifarralde edo naiz Hegoalde, ahal denean administrazioekin erarik hoberenean kontatuz eta lan eginaz; eta, hori ezinezko zai-gunean, horien gainetik aipaturiko bi erakundeotara edo Europa Batasuneko Parlamentura joaz.

Euskaltzaindiaren Arautegia ikustea aski zaigu, erakunde bezala duen ar-dura zertan den jakiteko. Lehen artikuluairen zenbait zati begiratu besterik ez dugu: e) Euskararen enplegua aintzinatzea. f) Hizkuntzaren eskubideak zain-zea. g) Hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.

ONU eta Unesco-ren deklarazio horiez gainera, Espainiako Estatuaren bar-nean diren eskualdeetan bestelako legez jokatu ezinik ez dugu, zeren Euskal-tzaindiaren Arautegia, 1976. urteko otsailaren 26 Dekretuz onhartua denez (*De-creto 573/1976, de 26 de febrero*).

DEKRETU horri erregeak egin zion sarrerakoan zioen: “Hoy es general la preocupación que en España se siente por asegurar el mantenimiento y la supervivencia de esta lengua conservada, hablada y transmitida por el pueblo...”. Eta 1918. urtean Oñiatin Euskaltzaindiaren sorreran bere aitona zen Al-fonso XIII.ak esan zituenak oroitzeaz gainera zioen honako hau: “Desde entonces la Academia viene laborando ininterrumpidamente en los fines para los que fue creada, fomentando la unidad de una lengua que hablan muchos es-pañoles y que es un elemento importante de la cultura y del acervo nacional. Por ello nada mejor para la tutela e investigación de la lengua vasca que el reconocimiento por el Estado de la labor de esta Academia que Su Majestad el Rey Juan Carlos I quiere hacer patente, de acuerdo con las memorables pa-labras de su egregio abuelo”.

ONU, Unesco eta bereziki Erret Dekretu horrek eskaintzen dizkigun ahal-menez ondo baliaturik, zuhurki jokatu beharra dugu gure Hegoaldeko herriaren aurrean eta, premiazko deritzaigunean, politikariei betearaztea eskatuz (Hor-tarako ikus: *Euskera*, XXIV, 1978, 131-132, orrialdeak).

Nafarroan, bertako Legebiltzarrak herrialdeak zatitu zituen apartheid lo-tsagarri batera eramanez: a) inguru euskalduna, b) inguru elebiduna, d) inguru gazteleraduna. Baina, inguru euskaldunean badira euskararik ez dakiten nafa-

rrak, inguru erdaldunean antzina *Lingua Navarrorum* zeritzana mintzatzen zen alde hartan euskaldun nafarrak diren bezala. Hori, 1948an ONUk azaldu zuen Giza eskubideen kontra doa. Nafarroa osoak elebiduna izan behar luke, hizkuntzari buruzkoan bertako biztanleek eskudide berdinak izango badituzte. Bestela ezin dezakete aurrera eraman Nafarroako Gobernuak sortu zuen *Ley Foral del Vasceuce* delakoa.

Hiru eskualdeetako Euskal Autonomi Herkidegoko abertzale alderdiei ere aditzera eman beharra dugu, administraritzak karguetarako baliapenez, euskara jakitearen puntuazioa, ezinezko dela lehenik ebartzale beraiek euskara goi mailako karguetarako kontutan hartu gabe. Euskara eta euskaldunei begira, guretzat ulertezinezkoa bata Jaurlearitzan zein Diputazioetako goi karguetan elebidunak ez jartzea. Txarrago oraindik euskaldun herrietako zenbait Udaletan euskararik ez dakiten alkateak jartzea. Jokaera horrek euskalduna, bere buruaz gutietsiz, etsipendurik uzten baitu. Eta benetako abertzaleek hobe dute lehenik beraiek zuzen bete besteei eskatzen dietena. Izan ere, abertzalearen lehen egin-kizuna izan behar luke euskara ikastea. Horregatik, gure gizon politikari aberzteleei aditzera eman beharko zaie: fedea ekintzaz bete beharra.

Badira bestelako alderdi batzuk pluralismoaz maiz mintzatzen direnak, aldi berean euskararen aurka era bai. Beraz, hizkuntzari buruzkoan, zer da horientzat "pluralismoa"? Elebakarduna ala elebiduna?

Gure herriak bere kultur ondarean duen edukirik garrantzitsuena euskara dela esan beharrik ez dut. Kontu horietan, bakoitzari bere izakera jatorrez datorkiona baita, berezkoena eta naturalena. Eta Euskaltzaindiaren jarrierarik egokiena hain premiagarri den hizkuntzaren sustapenean datza, bere arautegiak eskatzen duen bezala beteaz. Horrez gainera beste hizkuntzak ukatu gabe errespetatuz, eta aldi berean geurea errespetaraziz. Europear jatorrak izateko ere herri bakoitzak beretiko izakeran oinarriturik lortu behar du. Hor da Europaren pluraltasuna, Europa guziok osatzen dugunez.

Gainera, argi dago haurtzarotik euskara eta erdara dakitenek, bi hizkuntzok beraien egituraz elkarregandik hain desberdinak izateaz, errazago ikasten dutela hirugarren hizkuntza. Ikastoletan aspalditik irakasten duten ingelesa dugu horren lekuko. Onuragarritasun horren esperientzia, nik neuk, etxetik bertatik ezagutzen dut, semeak hala hezi ditugunez. Gaur egun, ingeles hizkuntzak tekniketarako, zientziarako zein merkataritzarako harremanetan dituen ahalmenak uka ezinezkoak direnez, gure herriaren aurrerapenerako horretaz baliatu beharrean gaude.

Euskararen alderako argudioak erabiltzeko, uste dut, on zaigula euskarak historian zehar izan dituen gora-beherak ezagutzea. Ihaz, asmo horrekin egin nuen *Euskararen ostarteak* (1998) deritzan liburua, gure iragana era orokorrean agertuz.

Hizkuntzaren ofizialtasunari buruzkoan, ordea, kontutan hartu beharrekoa eta ezautarazgarria iruditzen zait, euskarak lehen aldiz izan zuen ofizialtasuna, Nafarroako erresumaz gainera, Ifarraldean gertatu zena, Frantziako Estatuaren barnean XVI. mende hasieran. Bazirudien bide egokia hartu zuela, baina laster aldatu ziren irizpideak eta, gerorantz, hango hertsitasuna nabarmenagoa izan da.

Gezurra badirudi ere, Frantziako Errege Luis XII.ak, 1510. urteko ekainean, ordenantza bidez agindu zuen epaiketa guziak, biztanle bakoitzari bere hizkuntzan egitea. Erabaki hori, haren ondorengo Frantzisko lehenengoak, 1531. urtean berretsi zuen. Baina zortzi urte geroago (1539an) ezabatuz suntsitu zuen, euskararekin batean Frantzia guziko hizkuntzen etorkizuna larritansun ilunetara bultzatuz.

Ikus Henriette Walter-ek André Martinet euskaltzain ohorezkoaren hitzaurrearekin argitaratu zuen tesia: *L'Aventure des Langues en Occident: leur origine, leur histoire, leur géographie*. París, 1994. Bere gaztelerazko itzulpena Berta eta Mercedes Corral aizpeei zor diegu, *La aventura de las lenguas en Occidente: Su origen, su historia y su geografía* izenburuarekin 1997an Espasa Calpe, S.A. argitaletxeak Madrilen plazaratua. Eta arestian aipatu dudanak, honen 247-249 eta 265-271. orrialdeetan dioena du lekuko. Une honetan, esan beharra dut, *Euskararen ostarteak* inprimategian zela lortu nuela aipatzen dudana liburu hau eta gehigarritzko zati bat denboraz igorri nuela inprimategira, baina zoritxarrez, argitaratzailearen axolakabetasunagatik gelditu zela kanpoan.

Hala ere, Frantzia aldeko Euskal Herriak bere Ipar eta Ekialdetik gaskoina eta biarnesa zituen inguruko eta hauek irentsi arteko iraupena izan zuen euskarak frantsesarekin harreman zuzena eduki arte.

Ifar Euskal Herrian orain, aipaturiko ONU eta Unesco-k giza eskubideez eskatzen dutenaz bakarrik balia gindezke. Baina, ez da guti, zeren otoi! eta oroi, horiek mundu zabalerako gomendagarri ematean Frantzia bera ere sinatzaileen artean partaide izan zela eta hortik sortzen zaiola erantzun beharra. Eta hortarako, adibidez, Europar Batasunean bertan ereduak aurkitu ezinik ez dugu, besteak beste: Aosta, Tirol eta Txekian. Beharbada hobea eta lehenagokoa, Helbetiar federakuntzak bertako lau hizkuntzak ofizialak izan zitezen, joan zen mendearen lehen partetik, Konstituzioan jarri zituen arau egokiak oinarri direla. Beraz, Frantzian lana nolabait bideratzeko ere ez zaigu falta ez argudiorik ezta ahalmenik ere. Gainera, gogoan har, euskara dela Espainiak eta Frantziak beraien barnean duten hizkuntzarik antzinakoena eta gaur oraindik bizirik irauten duena. Eta hizkuntzen kontu honetan ezinezko dela tipiagoa edo handiagorekin indar arrazioekin jokatzea, demokratikoki, izate naturalean eta gurasoegandikoan oinarriturik baizik.

“Eurogutuna”, Europako hizkuntz gutituen alde, Estrasburgoko Kontseiluak 1992ko otsailean aurkeztu zuen lege proposamenaz. Eta gaur egun oraindik geldirik dago. Zeren Frantziako Errepublika Kontseiluak bere esku omen du

hizkuntzei dagokien arazo hau eta Europako hizkuntz gutituen aldeko gutun horri betoa jarri baitzion, arrazoi bidetzat adieraziz bere Konstituzioaren 2. artikuluaen aurkakoa dela. Artikulu horrek, horrela, Europaren izaera naturala ukatzen du eta aldi berean anaikero elkertasunean bizi ahal izateko era arriskuan jarri. Esan ditzatela nork noren menpe egon behar duen, Europak Frantziaren ala Frantzia Europaren mende? Horregatik, Frantziak aintzat hartzen ezbagaitu, Estraskurgoko Parlamentura jo ezinik ez dugu, eta horretarako biderik egokiena Europako Ombudsmanaren bidez joatea litzaziguke.

Bestalde, gure jokabideak aurrera eman baino lehen ezagutu beharrekoa iruditzen zait, ahalik egokien bide ziur bezain zehatzak eskaintzen dizkigun liburu bat, Bilbon ihaz Bakeaz deritzan Ediciones Unesco delakoak argitara eman zuen Leah Levin-en, *Derechos humanos: preguntas y respuestas*. Benetan baliagarria dena. Irakur eta bertan eskaintzen dituen jokabideak kontutan har ditzagun. Gainera, esan beharra dut, euskaldunon jakingarri, liburu honek euskarara itzuliz argitaratzea merezi duela. Eta, hortarako, Euskaltzaindia bera da erakunderik aukerakoena.

Bukatzeko, oroitu beharrekoa iruditzen zait, iragan otsailean Baionan aurkeztu nuen: “Jagon Sailaren ardurapeko lehen lanari buruz” (1) zeritzan txosten hartan azaldu nituela gure antolaketaerako eta ekintzetaerako zenbait aburu eta kontutan hartu beharrekoztat jotzen ditudala, orain hemen azaltzen dudanari ekintzarako lotura emateko. Euskaltzaindia ezin daiteke lo egon egungo egoe-raren aurrean.

---

(1) Ikus *Euskera*, XLIV, (1999-2), 351-354 orr.